

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOAREN SAILA

**Ekintzaileei laguntzeko udal beka-programaren 2019ko deialdiko bigarren fasera aurkeztutako eskabideak ebaztea. Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen du programa, "Emprende Local 20" izeneko 2014-2020 programa operatiboaren barruan**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 28ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udala-ren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Enpresen Zerbitzuan, 24. ildoak, "ekintzaileentzako beka" izeneko (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zk.).

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2019ko martxoaren 11ko erabakiz —2019ko apirilaren 3ko ALHAO, 41. zk.—, 70.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2019ko ekitaldirako luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura.

Deialdiaren lehen faserako eskabideak aurkezteko epea 2019ko irailaren 30ean bukatu zelarik, 2019ko azaroaren 15eko idazki baten bitartez jakinarazi zuten Enpresen Zerbitzuko teknikariek berrogeita hiru eskabide jaso zirela epearen barruan, eta horietatik hiruk ez zituztela betetzen deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak.

Eskabide horiek aztertu ondoren, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko azaroaren 22an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu ziren, eta balioetsi. Ikusirik deialdiko baldintzak betetzen zituztela eta aurkeztutako proiektuak egokiak zirela, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, eskatutako beka eta horiei dagozkien diru-kopuruak eman zekizkien 9. oinarrian ezarritako gutxieneko 65 puntuak gainditu zituzten hogeita bi eskabideei, eta puntuazio hori lortu ez zuten zortzi eskabideak eta baldintzak betetzen ez zituzten beste hiruak ezetsi zitezten —horietako batean, eskatzailea jarduera ekonomiko batean bere kontura ari zela agertzen zen; bigarrenean, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izateagatik; eta hirugarrenean, Gasteizen erroldatuta ez egoteagatik—.

Hauxe da egindako balorazioaren emaitza:

	NANa	Prestakun- tza	Esperientzia	Proiektua	Bideragarritasuna	Plana	Interesa	Puntuak
1	44685656Z	14	15	15	10	8	22	84
2	16295203W	14	15	14	10	7	19	79
3	72757003E	13	13	14	10	7	22	79
4	72737229M	11	14	13	10	8	22	78
5	72826015B	11	8	15	12	8	23	77
6	72744905E	11	8	15	12	8	23	77
7	X5635782T	11	8	15	12	8	23	77
8	72758296G	12	13	12	10	7	21	75
9	72825143J	13	12	13	10	6	20	74
10	72737956L	10	10	10	9	8	27	74
11	72843109Q	10	10	10	9	8	27	74
12	45821507X	12	10	12	10	7	23	74
13	72734884Y	12	10	12	10	7	23	74
14	58012262Y	11	9	10	9	8	25	72
15	72826912B	12	12	9	9	8	21	71
16	72748097V	12	12	10	9	7	21	71
17	44683545L	12	12	10	9	7	21	71
18	72840308K	12	9	12	8	7	23	71
19	72736613X	12	14	8	7	6	22	69
20	16284313Z	12	10	12	9	7	19	69
21	48156793Z	13	9	10	9	7	21	69
22	15392484X	10	15	7	11	5	20	68
23	44685699B	10	15	9	9	7	18	68
24	16282638H	11	13	8	8	7	21	68
25	Y3653745W	12	9	9	8	7	22	67
26	72740781S	9	10	12	9	7	20	67
27	16272970X	10	9	10	9	8	21	67
28	72749633N	10	10	10	9	6	21	66
29	73494227G	10	10	8	8	7	22	65
30	15993958B	10	10	10	10	7	18	65
31	72830633Y	10	10	10	8	6	21	65
32	72737222K	10	10	10	8	6	21	65
33	72849627W	11	8	7	7	6	22	61
34	72751256W	10	9	8	8	5	21	61
35	X2319884N	8	8	8	7	8	22	61
36	72841485W	7	8	10	8	6	21	60
37	Y6686334H	9	9	9	7	6	18	58
38	Y6984678Y	9	9	8	7	3	18	54
39	12738149J	7	7	7	7	4	18	50
40	X8683300H	10	5	5	5	3	15	43

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena, eta sail hori, udal hau-teskundeen ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila izatera pasa da, alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretua tarteko.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21eko erabakia dela medio, Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak —zehazki, 3. oinarrian ezarritakoa— ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, honako pertsona hauek eskatutako ekintzaileentzako beka ukatzea:

	NANa	ARRAZOIA
1	44683094M	Beka zein jarduera ekonomikorako eskatu den, eta horretan aritzea: Sozietate mugatu bat eratua izatea, eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea (3. oinarria)
2	16291305Z	Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea (3. oinarria)
3	78987958R	Gasteizen errolatuta ez egotea (3. oinarria)

Bigarrena. Aurkeztutako eskabideak eta proiektuak balioetsi ondoren, eskatzaile hauek aurkeztutako eskabideak ezestea, ez dituztelako lortu deialdiaren 9. oinarrian ezarritako gutxieneko 65 puntuak:

	NANa	Puntuak
1	72849627W	61
2	72751256W	61
3	X2319884N	61
4	72841485W	60
5	Y6686334H	58
6	Y6984678Y	54
7	12738149J	50
8	X8683300H	43

Hirugarrena. Deialdiko baldintzak betetzen direla egiaztatu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntza teorikoa kalkulatu (3. eta 9. oinarriak) direlarik, eta laguntza teoriko horien baturak (44.600,00 euro) bigarren fasearen zuzkidura ekonomikoa (35.000,00) gainditzen dutela ikusirik, ondoren zehazten diren eskatzaileei Gasteizen enpresa-proiektuak bideratzeko beka ematea erabaki dut, ehuneko 21,52ko murrizketa eginda:

	NANa	Puntuak	Dirulaguntza eskatua	Dirulaguntza emana
1	44685656Z	84	2.140,00	1.679,38
2	16295203W	79	1.840,00	1.443,96
3	72757003E	79	1.840,00	1.443,96
4	72737229M	78	1.780,00	1.396,86
5	72826015B	77	1.720,00	1.349,78
6	72744905E	77	1.720,00	1.349,78
7	X5635782T	77	1.720,00	1.349,78
8	72758296G	75	1.600,00	1.255,61
9	72825143J	74	1.540,00	1.208,52
10	72737956L	74	1.540,00	1.208,52
11	72843109Q	74	1.540,00	1.208,52
12	45821507X	74	1.540,00	1.208,52
13	72734884Y	74	1.540,00	1.208,52
14	58012262Y	72	1.420,00	1.114,35
15	72826912B	71	1.360,00	1.067,26
16	72748097V	71	1.360,00	1.067,26
17	44683545L	71	1.360,00	1.067,26
18	72840308K	71	1.360,00	1.067,26
19	72736613X	69	1.240,00	973,09
20	16284313Z	69	1.240,00	973,09
21	48156793Z	69	1.240,00	973,09
22	15392484X	68	1.180,00	926,01
23	44685699B	68	1.180,00	926,01
24	16282638H	68	1.180,00	926,01
25	Y3653745W	67	1.120,00	878,92
26	72740781S	67	1.120,00	878,92
27	16272970X	67	1.120,00	878,92
28	72749633N	66	1.060,00	831,84
29	73494227G	65	1.000,00	784,75
30	15993958B	65	1.000,00	784,75
31	72830633Y	65	1.000,00	784,75
32	72737222K	65	1.000,00	784,75
	<b>TOTAL</b>		<b>44.600,00</b>	<b>35.000,00</b>

Laugarrena. Enpresak sustatzeko udal Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren arduradun.

Bosgarrena. Dirulaguntza horien zenbatekoa (35.000,00 euro) 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura jasota uztea (7. oinarria), eta onuradunei horien ehuneko 50 ordaintzea (4. oinarria).

Seigarrena. Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen du ebazpen honen bitartez ematen den laguntza ekonomikoa, "Emprende Local 20" izeneko 2014-2020rako programa operatiboaren barruan.

Zazpigarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Zortzigarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 26an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI*